



LINFOGAMMAGRAFIA – BULARREKO TUMOREAN GONGOIL ZELATARIA HAUTEMATEA

MEDIKUNTZA NUKLEARRA

ZER DA LINFOGAMMAGRAFIA ISOTOPIKOA?

Tumore batzuetako drainatze linfatikoa bistaratzeko azterketa bat da. Hala, trazatzailea iristen den lehenbiziko gongoila non dagoen jakingo dugu. Gongoil horri zelatari deitzen zaio.

Gongoil hori aurkitzeak —lehenbizi, Medikuntza Nuklearrean, eta, gero, ebakuntza barnean (kirofanoan) zunda bidez— prozesuko tratamendua aldaraz dezake.

PROBA EGITEN DUZUN EGUNEAN

Baraurik etorri behar du

BAI

☐

EZ

☐

ZERTAN DATZA?

Proba egiteko, kontraste bat injektatuko dizugu lesioaren zonan; non dagoen jakiteko, baliteke beste irudi-teknika batzuk behar izatea (ekografoa, mamografoa...).

2-4 ordu igarotakoan, azterketa egingo dizugu. 15-30 minutu iraungo du.

Kirurgiaren egunean, gongoil zelatariaren kokalekua zehaztuko dugu, ebakuntza barnean —lehen esan bezala, horrek geroko tratamendua aldaraz dezake—.

Paziente heldu batek miaketa horretan jasotzen duen erradiazio estimatua toraxeko 8 erradiografia sinpleren eta hilabete inguruko erradiazio naturalaren aldi baliokide baten baliokidea da.

Beharrezkoa izan daiteke toraxaren azterketa erradiologiko bat egitea ordenagailu bidezko tomografia bidez (OT). Jasotako erradiazioa Medikuntza Nuklearreko miaketari gehituko zaio, honako datu hauen arabera:

<i>Miaketa</i>	<i>Dosi eraginkorra (mSv)</i>	<i>Torax-plaken baliokidea</i>	<i>Erradiazio naturalaren baliokidea</i>
<i>Torax TC</i>	8	400	3-6 urte

OHARRAK:

Haurdun zaudela uste baduzu edo bularra ematen ari bazara, jakinarazi gure profesionali.

